



Eli Gorostegi

«Donostia erdaraz bizi den hiria da»

Mikel Irastorza EHE Euskal Herrian Euskaraz-eko kide intxaurrondotarrarekin euskararen egoeraz hitz egin dugu.

Asier Coloma

Urriaren 16an, euskalgintzaren aurkako operazioan, zortzi euskaltzale atxilotu eta hainbat leku miatu zituzten, besteak beste, Martin Ugalde parkea. Hain zuzen, EHEk bertan du egoitza...

Bai, eta horrek eragina du guregan. Batetik, parkean gauden elkarte eta enpresa guztietan eragin zuzena duelako, ez baitakigu noraino helduko diren kriminalizazio saiakera horretan. Bestetik, eragin zuzena duelako euskalgintzako partaide garen heinean. Herri honetan nahikoa ohituta gaude berehalako erantzunak ematen, eta horiek beharrezkoak dira, noski. Izan ere, baliagarriak dira herri honen duen indarra eta hizkuntzari dion atxikimendua erakusteko. Dena dela, erasoaren aurrean, ildo estrategikoa abiatzea

ezinbestekoa da; euskaltzale garen indar guztiok Euskal Herriaren euskalduntzerako bide komuna finkatu behar dugu elkarrekin.

Hilaren 25erako "Ezabaketa Eguna" deitu duzue. Zer suposatzen du egun honek?

Historikoki EHEk antolatutako eguna da hau. Egunaren helburu nagusia euskalduntze prozesuan ditugun eraso guztiak salatzea da. Euskarak jasaten duen zapalkuntzari aurre egiteko eguna da eta euskaltzaleok jasaten ari garen egoerari erantzuteko tresna. Leloa "Oztopoen gainetik Euskal Herria euskaldundu" izango da.

Azaroan Batzar Nagusia egitekotan zarete. Zerbait aurrera al diezagukezu?

EHEk, Batzar Nagusi horretan, egoerari buruz egiten duen gogoeta plazaratuko



du, larria baita, gure ustez, egungo errealitatea. Azken urte hauetan egindako hainbat inkesta edo ikerketek euskararen egoera ez dela ona adierazi dute, eta honen gogoeta eskatzen du. Hausnarketa honetatik abiatuta, EHEk bere jarduerari finkatuko du. Eta abenduan, Iruñean, ekitaldia egingo dugu, euskaldunen berrakfizioa bilatzeko eta euskalduntze prozesurako egiten dugun proposamena zabalatzeko asmoz.

Ikerketa eta inkestak aipatu dituzu. Dirudienez, ez dago baikorregi izateko arrazoi askorik...

Oro har, ikerketa eta inkesta hauek

euskara arriskuan dagoela erakutsi dute, eta honen arrazoietakoa bat lege babes eza da; zatikatuta gaude legedi aldetik, eta oztopoz beteta, euskalduntze prozesua aurrera eramateko. Beharrezkoa da lege babes, beharrezkoa ofizialtasuna. Euskarak biziraun dezan, beharrezkoa da ofizialtasuna.

Eusko Jaurlaritzak helduen alfabetatzeari begira egindako dekretuaren aurka agertu dira euskaltegi gehientsuenak. Zer deritzozu?

Helduen euskalduntze eta alfabetatzeak honakoa bilatzen du: helduen artean euskararen ezagutza bermatzea. Eta, azterketek dioten bezala, erdaldun ele-dunak euskaldunak hiru halako dira. Argi dago, beraz, helduen euskalduntzerako sekulako eskaria egon beharko litzatekeela, eta hori horrela ez bada, bestelako arrazoiak daudela tartean. Euskalduntzea indartu egin behar da, Euskal Herri osoan gainera, eta Jaurlaritzatik egiten den planteamendua aurkakoa da.

Hedabideen garrantzia gero eta handiagoa da egungo gizartean.

Hedabideena garrantzia handiko arloa da, baina erabat lotuta dago egoera orokorrek. Jendarte erdaldun batean bizi garela kontuan hartuta, euskalduntze prozesuak eskatzen dituén zutabe guztietan indarra jartzten ez badugu, hankamotz izango ditugu besteak ere. Kasu honetan, argi dago hedabideei buruzko eztabaida ez dagoela pizturik. Esaterako, oso errotuta dago, tokian tokikoaz gain, euskarazko telebista bakarra izatea eta beste hamaika erdarazkoak izatea. Beste hainbeste egunkariei dagokienez, baita aldizkariari dagokienez ere, eta abar. Eztabaida hori piztu behar da, eta ikusi behar da nola hasi behar dugun eragiten hedabideek ere euskararen erabilpen zabala egin dezaten.

"Eskolak euskaldundu behar du" kanpaina aurrera eramanezen. Zein emaitza lortu duzue?

Gure ustez, indarberritu egin behar da ildo hori. Gaur egun, Euskal Herrian matrikulatutakoen erdia, gutxi gorabehera, erdalduna da; hau da, milaka haur eta gazte. Honek etorkizuna euskalduna izatea zeharo baldintzatzen du. Ahalik eta indar gehien bildu behar da aldarrikapen honen inguruan. Ereduen politikak porrot egin du, oraindik ere milaka erdaldun sortzen baititu indarrean dagoen hezkuntza sistemak.

Zenbait esparrutatik EHeri jarrera eraikitzailea izan baino, salaketara mugatzea leporatu izan diote. Zer esango zenieke kritika hau egiten dutenei?

Guk funtzio bat betetzen dugu eta, horretarako, lanerako bide ezberdinak jorratzen ditugu. Gure bilakaera ezagutzen duenak ikusi ahal izango du salaketa landu dela, mobilizazioen bidea jorratu dela, baina, era berean, ikusi ahal izango du elkarlanaren bidea ere jorratzen ari garela. Euskalgintzarekin herrietan, auzoetan eta Euskal Herri osoan ere elkarlanean ari garela eta proiektu bultzatzaileak sustatzen

Hedabideei buruzko eztabaida ireki behar da

ari garela ikusi besterik ez dago. Gure ustez, molde horiek guztiak beharrezkoak dira.

Donostiara etorrira, urte pare bat bada Donostiako Euskararen Plan Orokorra onartu zenetik. Zein da zuen balorazioa?

Plana onartu zenean hutsune batzuk ikusi genizkion, bai EHEK, bai beste zenbait eragilek ere, eta hutsune horiek konpondu baino, areagotu egin dira. Era berean, hainbat konpromiso ez dira bete, eta gauzapeña zeharo motela da. Esaterako, Donostian antolatzen diren hainbat emanalditan, sarri, euskara baztertzen dute. Gure ustez, plan osoago baten beharra dago.

Zein da, zure iritziz, euskararen egoera Donostian?

Euskarak Donostian duen egoera Euskal Herrikoarekin lotuta dago. Nabaria da euskara ez dela lehentasunezko gaia jendarteko pertsona askorentzat eta, zer esanik ez, politikarientzat. Gainera, euskara politikatik kanpora balego bezala jorratzen da, eta hori faltsua da, gure ustez. Donostian, maila askotan, alderdi onak daude, ez bairik gabe. Dena dela, Donostia erdaraz bizi den hiria da.

